

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**256/2020 Foru Agindua, uztailaren 6koa. Praktiketako funtzionarioak izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzetan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzailea)**

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Arauaren bitartez onetsi ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2017ko eta 2018ko enplegu eskaintza publikoak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

11.2 oinarri orokorrak aurreikusten du epaimahaiak praktiketako funtzionarioak izendatzeko proposamen bat egingo duela. Proposamen horretan, bakoitzari dagokion destinoko lanpostua adieraziko da, eta zerrenda hori argitaratu egingo da.

Hautaturiko izangaiek aurkeztu dute gaitasunari, hautaprobetan onartua izateari eta lanpostua betetzeari dagozkien betekizunen dokumentazioa; beraz, praktiketako funtzionario izendatu behar dira.

13. oinarri orokorrak dioenez, hala ezartzen den deialdi espezifikoetan, praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, gehienez ere 6 hilabete iraungo duena.

Praktika aldia egiteko lortutako destinoak behin-behineko izaera du.

13. arau orokorrean ezarritakoaren arabera, Balioespen Batzorde bat eratuko da, eta hark epaimahai kalifikatzaileentzat ezarrita dauden jarduteko arau berberak izango ditu, eta praktika eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin balioetsiko du.

Alde batetik, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez -Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuak aldatua-, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaitetan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

#### XEDATU DUT

Lehenengoa. Praktiketako funtzionarioak izendatzea, 2020ko uztailaren 13ko ondorioetarako datarekin, Arabako Foru Aldundiaren 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzetan karrerako funtzionario gisa sartzeko, sistema irekiko txanda orokorraren bidez, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu++ berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzailea). Hautatutako izangaiek ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Asier Ruiz Argote	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1167.003
Juan Gómez Gómez	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1167.014
Ane Sorkunde Arrázola Otaduy	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1167.008
Aitor Torre De la Calle	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1167.010

Bigarrena. Praktiketako funtzionarioak izendatzea, 2020ko uztailaren 13ko ondorioetarako datarekin, Arabako Foru Aldundiaren 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzetan karrerako funtzionario gisa sartzeko, barne sustapeneko txanda bidez, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzailea). Hautatutako izangaiak ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Ana María Pérez Larrauri	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1167.006
Lander Mendia Isusi	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1167.001

Hirugarrena. Praktika aldia egiteko atxikipenak behin-behineko izaera du.

Laugarrena. A1 taldeko oinarrizko ordainsariak eta atxikitako lanpostuari dagozkion ordainsari osoak jasoko dituzte.

Bosgarrena. Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatzeko Balioespen Batzordeko kide hauek izendatzea:

Batzordeburua	Titularra	Lourdes Martínez de Lagos Manzana
	Ordezkoa	Carlos Auzmendi Irastorza
Batzordekideak	Titularra	Pilar López Luque
	Ordezkoa	María Pérez de la Peña
	Titularra	Agustín Vicente Vicente
	Ordezkoa	Nagore García Velázquez

Seigarrena. Foru Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, aukerako berraztertze errekurtsua ebazpena eman duen organoaren aurka, hilabeteko epean, Foru Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitute Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikuluek eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 6a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR